

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zabalik da komunikabideetan euskara erabiltzeko laguntzen deialdia

Aurrekontua 630.000 eurokoa da, eta idatzizko prentsan, irratan eta onlineko hedabideetan euskarak presentzia izan dezan sustatzera bideratuko da

Astelehena, 2018.eko apirilak 9

Gaur argitaratu da [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) komunikabideetan (hala nola idatzizko prentsan, irratan eta onlineko hedabideetan) euskara erabiltzeko laguntzen deialdia. 630.000 euroko aurrekontua izango du, iaz baino 50.000 euro gehiago. Laguntzak eskatzeko epea apirilaren 10ean, asteartearekin, hasten da, eta maiatzaren 9ra arte egongo da zabalik.

Deialdi honekin, Nafarroako Gobernuak Euskararen Foru Legea betetzen du, zeinak Foru Komunitateko administrazio publikoei agintzen baitie susta dezatela euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan komunikabideetan. Konpromiso hori jaso dago [2016-2019 aldirako Euskararen I. Plan Estrategikoan](#) ere. Plan estrategiko horretan, beharrezkotzat jotzen da hedabideetako eskaintza zabaltzea gizarteak sarbide errazagoa eta handiagoa izan dezan euskarazko informaziora. Hori beharrezkoa da euskaldunek gizarte-esparru guztietan erabili ahal izan dezaten euskara.

Deialdiak zazpi modalitate izango ditu, jarduera-esparruak bereizteko:

- 1.- Euskara hutseko idatzizko prentsa (egunkariak), 60.000 euroraino.
- 2.- Euskara erabiltzen duen idatzizko prentsa (egunkariak), 60.000 euroraino.
- 3.- Nafarroan hedatzen diren euskara hutseko tokiko aldizkariak, 260.000 euroraino.
- 4.- Nafarroako zonalde mistoan eta/edo ez-euskalduneari hedatzen diren eta euskara erabiltzen duten aldizkariak, 40.000 euroraino.
- 5.- Euskara hutseko irati-etxeak, 160.000 euroraino.
- 6.- Euskara erabiltzen duten zonalde mistoko, ez-euskalduneko edo bietako irati-etxeak, 20.000 euroraino.
- 7.- Euskarazko edo euskara erabiltzen duten onlineko komunikabideak, 30.000 euroraino.

Ezin izango dituzte laguntzak eskatu beren hedabideetarako alderdi politikoek, elkarte politikoek, sindikatuek, elkargo profesionalak, kirol-taldeek, fundazioek, eskola-aldizkariak, aldizkari espezializatuek, kultur buletinek, udal buletinek eta abarrek.

Gainera, onlineko modalitatean, debekuak ezartzen zaizkie beren orrialdeen gutxienez % 50ean euskaraz nabigatzeko aukerarik ematen ez duten hedabideei, besteak beste..